

## COVID ARAUEN ERREPASOA

Dakizuen bezalaxe, abenduan zehar eta urte honen hasieran Covid-19 birusaren intzidentzia-tasa altuarekin jarraitzen dugu. Hori dela eta, lehendakariak berriro deklaratu behar izan du osasun-larrialdiko egoera. Gabonetako oporretatik itzuli ondoren, indarrean dagoen Protokolo Orokorra zorrotz betetzea eskatu digute, batez ere, kontaktuak mugatzearekin eta espazioak aireztatzearekin dute zerikusia.

Ezinbestekoa ikusten dugu aipatzea berriro egunero eta etengabe kontutan izan behar duguna, mesedez, arretaz irakurri:

### 1.- Kontaktuak mugatzea:

Helduen arteko elkarrekintzetan zorrotz errespetatu behar da 1,2 metroko pertsonen arteko gutxieneko distantzia, maskara erabiltzea barne distantzia edozein dela ere. Era berean, oro har, gutxienez 1,2 metroko pertsonarteko distantzia mantenduko da ikasleen artean, ikastetxetik mugitzen direnean edo gelatik kanpo daudenean.

### 2.- Maskararen erabilpena:

Maskara higienikoa izango da gutxienez, eta dagokion ziurtagiria eta homologazioa izan beharko ditu.

Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta ikasleak eserita egon eta 1,2 metroko pertsonen arteko distantzia mantendu.

Mugimendua, kantua edo antzekoak eskatzen dituzten irakaskuntza jardueren kasuan, maskara erabili beharko da eta pertsonen artean dagokion distantzia mantendu beharko da.

### 3.- Gelan:

Ikasleei higienari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazten jarraituko da, eskuak garbitu, desinfektatu, gelako aireztatpena:

- Lehen saioaren hasieran tenperatura neurtu
- Etengabeko aireztatpena ikastetxeko espazio guztietan, horretarako atak beti zabalik egon behar eta leihoak gutxienez oszilobatiente bezala.

#### **4.- Errekreoan:**

Aire zabaleko jolasetan eta jardueretan nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea. Ez da beharrezkoa izango elikagaiak eta edariak hartzeko, ezta kanpoaldean jarduera fisiko bizia egiten denean ere.

#### **5.- Garbiketa eta aireztapena:**

- a. Arreta berezia jarriko zaie erabilera komuneko guneei eta ukipen-gainazal ohikoenei, hala nola ate, mahai, altzari, telefono, pertxa eta antzeko beste elementu batzuei.
- b. Lanerako partekatzen diren postuak garbitu eta desinfektatu egingo dira txanda-aldaketa bakoitzean eta beste eremuetara ere zabalduko dira, hala nola atsedenlekuetara, armairuetara, komunetara,...
- c. Ikasgeletan, jantokian edo beste gune batzuetan txandak ezartzen badira, ikasleak aldatzen direnean, txanden arteko garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena egingo da.